

NIKOLAS MALEBRANTXE (1638-1715)

Paris'en jaio eta Felipe Neri deunaren Oratoriokoa izan zan, Berulle kardinalagaz batera. Antxe ezagutu eban San Augustin'en eta Deskartes'en filosofiak. 1664n. urtean egin zan abade.

Bitartean Paskal itzita, barriro sartzen gara Buru-argiaren bidera, baiña kristautasun zintzoa dauan abade bategaz.

Malebrantxe'k filosofi kristiñaua nai dau ba agertu, fedea eta burubide argiak bide dirala.

Aristoteles'en bidearen aurka dago eta bere ustes Deskartes'ek ogeta amar urtean egi geiago aurkitu eban beste filosofo guztiak edesti osoan baiño. Teolójian antxiñakoa artu bear dogu, filosofian gauza barriak. Dana onartu bear dogu zalantzarako biderik ez dagoanean.

Nondik sortzen dira burubide edo ideak Malebrantxe'rentzat? Emen Deskartes'en bidea bera artzen dau eta burubide argi eta ziurak dira ezagutzeko bide bakarra. Zentzunak onak dira baiña ez ideak sortzeko bide lez.. Somatzen dogun beroa ez dago or kanpoan, geure barruan baiño. Orregaitik kanpoko izakiak ezagutzeko ez dogu joan bear kanpora geure zentzunakaz, irudimena isilduazo egin bear dogu. Bidea ez da Aristoteles'en zentzun-bidea, eta ez Platon'en burubide adimenean jaioak be.

Lau era daukaguz gauzak ezagutzeko: gauzak eurak Jainkoa an dagoalako, ideak daukaguz bide lez eta oneik euren zertasuna dauke Jainkoagan, idea orreik geure buruan dagoz eta geure kontzientziagaz ezagutzen doguz, bizi-ikasia, eksperimentzia dira eta ideak alkarregaz konparatzen doguzanean ezagutu egiten dogu ustea euretan ipinten dogulako.

Jainkoa zuzen eta idea barik ezagutzen dogu. Baiña nondik datoz ideak eta zer dira? Augustin deunak irakatsi eban lez, ideak betikoak dira, bearrezkoak dira eta zertasuna dauke eurengean. Ez dauz sortzen gure gogoak, ez doguz aurkitzen asieratik bertan jaiota, ez doguz lortzen

Aristoteles'en kenketaren bidez, guk ideak Jainkoagan ikusten doguz, Jainkoagan ikusten dau gure gogoak Jainkoak egin dauana dana.

Orregaitik ez dauz onartzen ideak ezagutzeko bide lez, gure adimenak artu egiten dauz, ez sortu, arimea ta gorputza gauza bi dira, Jainkoa da gauzak argitzen dauskuzan indar bakarra. Eta jainkoa ba-dago, ez dago ori baieztatu bearrik, orixe da idearik argiena, "pentsatzen dot, orduan ba-naz" dan bestean argia da idea ori. Eta or dago inguruko mundura gu sartzeko bide bakarra.

Baiña Malebrantxe'ren gauzarik bereziena baterako aukera "okasionalismoa" da.

Zelan joaten gara pentsalariagandik zabalak dira gauzetara "res extensa"? Malebrantxe'ren erantzuna korapillotsua da: Jainkoak agertu dauskulako bere mundugintza. Guk zerbait sentitzen dogunean, aukera (ocasión) ori artuta agertzen dauskuz adimenean kanpoko gauza egiñak. Munduan ez dago egillerik, "causa" dan ezer, benetako egiñlea beti da Jainkoa eta guk aukera orreik ikusten doguz.

Beste arazo bat kizango da Malebrantxe'rentzat, ori zelan alkartzen dan gure askatasunagaz eta etika edo moralagaz: Guk ariman gauza bi daukaguz, naimena ta askatasuna, esan dogun dana naimenaren bidean dago, baiña gauzak egiteko orduan askatasuna sartzen da. Naimena Jainkoaren eskuan dago, baiña askatasuna geure eskubidea da.

Errez ikusten da Malebrantxe'ek ez dauala nai besterik Deskartes'en filosofia osotzea baiño, filosofi onek dauzan okerrerako bideak zuzendu nai dauz eta orretarako Jainkoaren ekintza sartzen dau mundura eta ideak Jainkoagan ikusten doguz. Eta naimena ta askatasuna bereiztea ez da besterik etika edo moralari bide bat zabaltzea baiño.

Olako korapillorik ez dago Aristoteles'en eta Akinotarraren bidean.

OLAZAR'tar Martin'ek

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*



ALDIZKARI ONEK
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ